



Efoma—Batikano'tik.

**Bidezkundeak,** Bidezkundeak aufera doaz. Egunokaz Aita Santua onexek ikertu dabe: Ipar Amerika'tik, Domekatar irugafengo 100 lagunek; 70 Ipar-Amerikako italitar yatorizkoak; Aleppo'tik 26; Beyrouth'etik, 4 Gerkar Melkita erako, Saba Gongotzaña buru dabela; 100 armenitafek; Pittsburg'eko 21 irakaslek; Lyon'go 102 «Noeliste»k; Efoma'ko Armenitar Ikastetxeko talde ugariak, latefi askotakoak, Palestina, Siria, Egipto, Turkia, Parantze, Belgika ta abarekoak, eta oi diran beste talde asko. Gustiei Aita Santua'k eskua mun egiteko emoten eutsen. Oran'dik be 160 bidezti eldu dira, Gotzaña buru dabela.

London'en egazkiñez (aeroplanoz) bidezkunde bat gertatzen diardue. Urteeran, lenengo egunean, Suiza'ra yoango dira, andik ufengo egunean Efoma'ra eltzeko. Etorrea egun baten egingo dabe, goizean Efoma'n urten eta aratsaldean London'era eltzeko. Egazkiñez 1.500 kilometro dagoz, baña Alpes mendietako afiskuetatik iges egiteafen luzetxoago urtengo dautse. Egazkin bakoitzak 15 lagun eroango ditu.

**Efoma'ra oñez yoan diran bideztiak.**

Urte Deun onetan bidezkunde oñez Efoma'ra yoan diranak, 200 izan dira, Italia'ko katolikotar izaparingiak diñoenez. Geyenak gizon egiñak izan dira, gastetan oso gitxi. Batzuk 60 urtetik gorakoak be bai. Yakiña, bidezirik geyenak italitarak izan dira. Oñez italitar artean urifenetik eldu diranak Siziliatarak izan dira. Baña atzefietatik be ainbat izan dira oñez yoan diranak, eta euron artean, Alemania, Portugal, España, Belgika, Ungaria ta bat Txinatik be bai, urte bian oñez ibili ondoren. Bidezti onein artean zafena Italia'tar bat izan da, 79 urte bizkafean zituala Valdagnotik Efoma'ra 21 egunean eldu zana. Bidezkunde - batzordeak onangoei iru eguneko yan eta ostatua emoten dautse. Oñez taldeka yoan diranen artean bat izan da 100 lagunekoa Montekasino'tik Efoma'ra bidez-bide yoan zana. Egunokaz eldu dira iru langile oñez Madrid'etik. Ite biterdi igaro ditue.

**Merzier kardenal ospetsuaren aintzaz.**

Braine-Allend (Beljikan) bere izena daroan Ikastetxe afean, egunokaz ipiñi dabe Merzier kardenalaren gomutaz iragiko daben oroigayaren lenengo afia. Aita Santua'ren Ordeleri Micara agurgafia, Carton de Wiart bakaltzeña, Jacowsky Polonia'ko Ordalaria ta gizoste andia bildu zan. Lenengo afia onetsi ondoren bere goralbenez itzaldi edefak egin ziran.

Irakufi EKIN asterokua.

**Andra Maria'ren agerkundeak dirala-ta.**

Beljika gustia afeaz dago Beauraing'en Andra Maria'ren agertzeak dirala-ta zer urten bear ete daben. Aspaldi asi ziran ume batzuei Ama Birjiña agertu yakela-ta, toki artara otoi egitera yoaten. Lenengotan yaupariei yoatea debekau yaken. Eta orain abadeai otoi egitera yoateko bai-pena emon, eta eleiza bat egiteko be bayetza emon dan afen, ondiño Eleiza'ko agintariak azkenengo itza ez dabe esan. Ondiño ba, itxaron egin bear da, eta ez iradurik artu, Eleizak itz egin artean. Emen gauza bi oartzen dira. Gizosteak goiko gauzen egafi bizia agertzen dabela, eta Eleiza'k zurtasun andiz yokatzen dabela, eta ez dabela esango ezer, argibide ziur - ziurak ikusi arte. Itxaron ba ziñestu baño lenago...

Aspaldian olango agerkundeak ugari dabilzala esan lei. Fatima (Portugal'en), egizkoak izan zirala gero ta obeto ikusten da. Eleiza ta abadeakanako gofotoa ibitu da, eta Yaungoikoak nai dabenean bere etsayen asmoak ezeresten dituala be bai. Egin -eginean be, bidezkundeak eta debekau ebezanean, Fatima'ko agertzeak asi ziran, eta etenbako bidezkundeak gaur yafaitzen dabe. Ba'leiteke ba osoro egiztutea.

Eta Ezkioga'koa? itandu leike norbaitek. Or *ikusleen* artean gadora andirik ez da izan eta Gotzain agurgafia bertara yoatea be bedekau afen yafaitu ebelako, naiko agertu eben yaungoikozko gogorik egiz ez ebela izan. Eleiza'ko buru djranei men-egiten ez dautsenei olango gauzarik ez yake ziñestu bear... Apaltasuna non da? Eta ori barik, nori zinstu?... Eta ointxe be batzuk eurenear yafaitzen dabe. Onegaz gauza bat beintzat ziur agertzen dabe, buru-gogofak dirala... «bestea»... ikusi arte itxaron...

**Lourdes'en Gexozanen bidezkunde ta Batzafa.**

Latefi -arteko Gexozanen bidezkunde ta Batzafa oso edefa izan da. Lourdes'ko Andra Maria'ren oñetan bildu ziran 200 gexozain amar latefitik bertara eldu ziranak. Latefi -Batzafa, Kanada, Alemania, Ingalanda, Belgika, España, Parantze, Polonia ta Suiza'k euren ordelariak bialdu ditue. Brasil'dik be eurakaz batean egozala adierazo eutsen.

**Reims'eko Gitzarte-gayetzako batzafa.**

Reims'ko uri ospetsuan pan-

tzetafak gizartizti -batzar edefa egin dabe. Reims uria azkenengo guda ankefean, ia gustiz ondatuta gelditu zan, Bertako Gotzain -Eleiza bardingabeaz batean. Gaur Eleiza au gustiz bafiztauta dago. Gudan asieran uri onetan 130.000 biztanle egozan 13.806 etxetan, eta oneitatik 8.625 gustiz ondatuta gelditu ziran, eta enparauak be 20 izan ezik, naiko apurtuta. Gaur dana bafiztau dabe. Toki au aukeratu dabe, Batzar au egiteko. Aita Santua'k idazki edefa zuzendu eutsen, Eleiza'ren irakatsiak aitatuz. Itzaldien gaya auxe ixan da: «Latefia kistar - irakatsiak azaltzen dabenez». Azaleko gaitzak osatuta dagozan ezker, oin gogotan egindako kalteak osatu gura ditue ta ofetarako kistar - irakatsiak azaldu. Lenengo batzafean 1.500 bazkide bildu ziran eta Duthoit lendakariak, beste batzuen artean, itzaldi sakon baten azaldu eban, latefiak kistar-irakaskintza-arauz zer izan bear daben. Bigafenean 2.000 entzuleri Guillet domekatar Buruak «eriketa edo politikan lan eginbeafatzaz» itz egin eban. Zaltetan andienaz enparau egunak igarota, azkenengo egunean Paris'en Aita Santua'ren Ordeleri Magiglione agurgafia ta Verdier kardenala bertan zirala itzaldi ta eleizkizun edefak egin eta *Te Deum* bat Gotzain-eleizan abestuz amaitu zan.

Olantxe amaitu zan XXV'n gizartizti Batzar eder au.

**Alpesetan 3.200 metro garai Andra Maria'ren irudi bat.**

Garila 26'n Alpes'etako Rechese mendi garayan Ama Birjiñaren irudi eder bat onetsi eben. Danion abak eta oin bost urte erabagi ori artu eben. Ilaren 25'n irudia yaso eben eta azken aldean mandorik ezin ibili leiteke -ta, lepoan mendigoizaleak eroan eben. Ez eben zeregin makala artu. Gau gustian gora ta gora ekin eutsen. Seiretan Felix-Fura'ren atsedentokira eldu ziran eta andik iru ordu laurenean erpiñera yaso eben. An Mesa esan eta *baraurik igon eben iru mendigoizaleri Yauna emon eutsen*. Azkenean gustiak «Credo» a abestu eben eta «Ave Maris Stella». Agur semekoi bat Amari eginda, mendigoizale efimeok yatsi ziran.

A zelako ikasbidea, mendigoizaleentzat! Mendiak gure biotza gora begira, Yaungoikoa'gana begira, ipiñi bear dabe, zerbait ziñeste euki ezker, Yaunaren beso altsua toki areitan bikainkiro agertzen da-ta. Gora gorputzak, baña gora biotz-gogoak be; bestela gorputzari bakafik begiratu ezker, mendira yoaten diran asko «basati» biurzen dira-ta.

M'tar G.

## LOIDI TA ZULAIKA

Mairako arda on-onak. Ardautegi aundiak Alcázar de San Juan'en (Ciudad Real'en)

**Meza Santurako**

**BERARIZ TA BERIAN-ERE GERTAUARIKO**

**Ardau eder-ederra**

ZUZENDIA: Idiakez, Donostia—Urutizkin eta urutidazkiñez: LOIDI.

# Euskal-erriko izparrak

## BIZKAYA

**Dima.**

*Gasteiz'era.*

Bargundia'ko Mariano Bilbao ta Arostegietako Pedro Etxezafaga jua ziran lengo igandean Gasteiz'en Estatutoen alde egin zan batzafera.

*Birauen aurka.*

Biraua, erlejiñorik ez daukienen agoan be ibili bear ez dan gauza da: edukasiñoa daukenak ez dau iñoz be urten bear biraularien alde: biraulariek bere agokada loie garbituteafen «qué buen Dios» esan dabela esaten badau be ez. Agokada loiek biraularie berbera minduten ez badaudie be, aintzekotzat dagozanak minduten ditue. Geure artekoen baten aurka zer edo zer entzuteak minduten bagaitu, zelan ez gaitue minduko geure sinismen eta geure Jaungoikoaren aurka entzuten doguzanak? ¿Nor izan leiteke biraularien aldekoa...?

*Gastelugatxera.*

Dima'tar aldra bi izan dira itxas -baster onetarantz lengo egun batzuetan: bitzok pozik etofi dira gauza edefak ikusi ostein.

*Baltzola'ko jaiak.*

Eguenian izan dira baltzola'ko Laurentzi Deunaren jaiak; ain toki polita dan ezker aibat gente juaten da basefi ortaranz.

*Naskaldia.*

Logroñotik etofi da Olazabal'era Bitor'en seme dan Sinforiano gudaria.

Efotazafera, bertako mutila.

Belmontetik egun batzuk etzekoen artean igarotera Olazabal'go Estebanen seme lekaidia.

*Ardiak.*

Lengo egun baten Arteun aldeko artzain batzuk saldu deusiez Zeunuriko Markos Beretxikortari okela ardiek.

*Pelota tokia.*

Badabil ba aspalditxoan pelotarie ugari gure pelota lekuen. Olako zaltetasuna ikusirik be jez ete da ba apur bat atonduko? Bear izena badauko ba.

X. X.

## GORUNTZ - GAYAK

Eunak, bale-bizarak, zumitz ugaf-gaitzak

**Zubiri'tar Bingen**

Artekañe, 50

BILBAO

**Ondañoa.**

*Koldobikatarak.*

Igazi zan igandez ixan geban Koldobikatarak geure ileroko Jaunartze orokofa.

*Bederatziufena.*

Egunokaz bederatziufen bat ospatzen ari dira Antigua'ko txadonan Ama Neskutzaren goralbenez.

Txadonkixunok, goiz eta iuntze egiten dira eta ospetsu eta andikiro egin be.

*Itxasotikuak.*

Gai onetzaz idazten jarten nazan gustijan, lelo bardiña erabilten dot. Beti gitxi edo ezer bere ez. Eta orainguan be besterik ezin neike idatzi; ba, emetik dabilzazan sardiñeruar atxituten dabena gustiz labur da, eta Asturias aldetik egaluzetan dabilzazan lufun - ontzijen izpafak, ezin ifunaguak,

*Uri-jayak.*

Uri-jayak laster dira eta Andre Mi-

ren'en aintzaz egingo diran jayetara ko notiañak ezira asafe. Eta ikusten dogunez jayok euzko-usaña dakafela, poz ori gugana be eltzen da. Egitaraue eztoqui oindiño irakufi, baña uste danez espadatantzarajak, gorularajak, poxpoliñak, pelota - jokuak, afaunketak, urijan dagozanen gañetik erbesteko eresbatzak eta abar ezira paltako. Bafiz, txadonkixun gorenetaquak ixango dirala esan biafik eztako.

ITUÑI-ONDO

**Eleiz - Jantzi ta urregintza**

**A. Rui-Wamba**

Eleizak jasteko biar dan gustia emen aurkituko dozue ona ta merke

Plaza Nueva, 10 Ufutzikiña 14.238  
**BILBAO**

**Mañari.**

*Bederatziufena.*

Andera Miren'en Jasokundiaren aintzaz emeko elezan urtero ospatuten dan bederatziufena, lengo igandian asi zan. Iluntzietan egiten da.

Ondiño be... Gure Batzokija ondiño be giltzpian daukagu. Noz arte diñozu? Ifaun azartu oferi erantzuten efej ezta gero... Gaur au ta bijar ori esaten daben gixontxu baten «abo -esanian» gauzia dagoalako.

Dana dala, lafegi ezkadixan estutu, ingeruak tronpetia jo baño len ate mofoluak edegiko dira-ta. Ta... orduko kontuak ezituz esango mutiak...

*Juan-etorijak.*

Eibar'era jua zan Sarobe'tar Pausta mutila.

Gasteiz'en egun batzuk igarota, lengo astelenian etxeratu zan Bizkaia'tar Nikola.

Igandian egon ziran emen Arefio'tar Eñamon eta emazia.

*Gexorik.*

Naiko txarto aurkitzen da Aldekoa'tar Euzeli «Itufija»ko mutikua. Osasuna opa dautsogu.

*Etofi yaku ba.*

Berua biar izan ba-dogu, etofi yaku ba. «¡Au dok berotzafala!» Egunontan beste berbarik eztarabilgu. Eguzkijak eta ego-axiak sorturiko ume ofek arterik artzen de eztauzku izten, ¡Gogaikafija da gero! Eskefak Saluete'ko kobiaren abo -zabalera iges-egiten dautsogulako.

¡Ango egotaruaren edefal

MAÑARIK

## JANTZIAK

gizonentzako Teadoron-ian egingotzue iñun beizen ondo eta lauko asko kendubarik.

**TOVALINA Y C.ª L. D.**

SOMERA TT  
**BILBAO**

Lenengo oñian sartukeria dendaik.

**Erigoiti.**

1629.

Alkatea zan: Domingo de Itufalde; Eregidoreak: Martin de Ordorika ta Juan de Beitia; mayordomu: Domingo de Monasterio ta Erezuma. Befogeta amabost karga iketz egin ziran eta saldu iru txakufean karga bakotxa. Aufeko urtean elezan egiñiko gastuek ordainduteko egozan, eta laureun efeal ta piku emon eutsiezan Juan Otxoa de Landiari, eta Kristo-